



# Mendaroko UDAL BULETINA

2025eko urtarrila

(más abajo en castellano)



## **Aurkibidea**

### **Aho batez onartu du udalbatzak mendaroko udaleko 2025eko aurrekontua.....4**

Udal gobernuko bi alderdiek adostasunez onartu zuten 3.616.757,77 euroko 2025eko aurrekontua Mendaroko Udalerako, iazkoa baino %12 handiagoa

### **Garagartza auzoko uholdeei aurre egiteko Mendarok Diputazioaren laguntza behar duela adierazi zion Mendaroko alkateak Diputatu Nagusiari.....6-7**

Pasa den urtarrilaren 9an Eider Mendozak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiak eta Felix Urkolak, Errepideetako Diputatuak Mendarora bisita egin zuten, amaitu berri duten zubia berrindartu eta birgaitzeko lanak ikusi eta Mendaroko Udal Gobernuarekin lan-bilera bat egiteko

### **Mendaroko Udalak Herritartasuneko Teknikariaren lanpostuaren deialdia itxi du.....8**

Mendaroko Udalak herritartasuneko teknikariaren lanpostua betetzeko deialdia itxi berri du, hautaketa prozesuaren bidez, lehiaketa-oposizio bidez

### **Burulogy tailerrean izena emateko epea zabaldu da.....9**

Mendaroko Udalak, Burulogy-ren bidez, entrenamendu kognitiboko tailer bat ezarri nahi du adimen-trebetasunak hobetu nahi dituzten eta gradu altuko nahasmendurik ez duten pertsonentzat

### **Mendaroko Udalak kultur jarduerak eta udal zerbitzuak hobetzeko erosketa berriak egin ditu.....10-11**

Mendaroko Udalak azkenaldi honetan hainbat erosketa egin ditu, kultura jarduerak hobetzea eta herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak optimizatzea helburu dutenak

### **Amaitu dira Santa Ana basilizaren birgaitze lanak..... 12-13**

Aurrera begira, Santa Anarako bidea txukuntzeko asmoa ere badauka Udalak

### **Gizarte Larrialdietarako Laguntzak 2025erako..... 14**

Mendaroko Udalak 60.000 euroko partida izango du 2025. urterako, gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko beharrezkoak diren gastu

espezifikoei aurre egiteko baliabide nahikorik ez duten bizikidetza-unitate bateko pertsonentzat

**Azken 4 urteetan landa-lurzoruko lursailak topografikoki mugatzeko lanetan ibili da Mendaroko Udala, eta hurrengoa, 2025koa, izango da azken urte.....15-16**

Lurjabeei lan hauek azaltzeko bilera bat izan zen abenduaren 19an Udalbatza aretoan



## **Aho batez onartu du udalbatzak mendaroko udaleko 2025eko aurrekontua**

*Udal gobernuko bi alderdiek adostasunez onartu zuten 3.616.757,77 euroko 2025eko aurrekontua Mendaroko Udalerako, iazkoa baino %12 handiagoa*

Mendaroko Udaleko Udabatzak pasa den azaroaren 26an, ohiko saioan onartu zuen 2025erako 3.616.757,77 euroko aurrekontua. Udal gobernua osatzen duten bi alderdiak adostasun batera iritsi ziren eta bertaratutako zinegotzi guztiek aldeko bozka eman zuten.

Ohiko moduan, Foru Aldundiaren Udalak Finantzatzeko Foru Funtza (UFFF) izango da Mendaroko Udalaren diru iturri nagusia 2025ean ere. Sarrereren erdia inguru izango da bide horretatik jasoko duena Udalak, 1.801.370 euro, hain zuzen ere; iazko ekitaldian baino 70.000 euro inguru gehiago.

Gastuei dagokienean, inbertsio errealetarako 353.500 euro aurreikusten ditu onartutako aurrekontuak.

Jubilatuen taberna eta egoitzaren erreformarako 150.000 euroko partida onartu da, behin proiektua idatzita dagoenean lanei ekiteko balioko luketenak, nahiz eta lanak amaitzeko beste partida bat onartu beharko den hurrengo urteko aurrekontuetan. “Inbertsioen ia erdia partida honek darama, baina uste dugu herriko jubilatuek toki duin bat izan behar dutela euren aisialdiaz gozatzeko” adierazi du alkate Enetz Ezenarrok.

Bestetik, 40.000 euro aurreikusi dira Plaza auzoan, Intxusadi errekaaren magaletan Udalak lurjabearekin adostuta daukan lursail bat erosteko, bertako basoak berreskuratu eta ingurune naturalak babesteko Udalak aurrera eraman nahi dituen aktuzioen baitan.

Lokalen erosketarako 50.000 euroko partida bat ere jarri da. “Frontoi osteko lokalak hor kokatzen den kirolgunea zabaltzeko erabili nahi ditugu. Horretarako Mendaroko anbulatorioari leku alternatibo bat bilatu behar zaio lehenik. Osakidetzarekin

anbulatorioarentzako leku egoki bat adostu nahian gabilta lekualdatze hutsa izan beharrean Mendaroko Osasun zerbitzuak

hobetzeko aprobetxatu nahian” alkatearen iritziz. Testuinguru horretan kokatzen da lokala erosteko Mendaroko Udalaren nahia.

Azkenik 110.000 euro gorde dira Mendaroko Udalak Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza sailarekin abiatutako elkarlanaren baitan etxebizitza eraikin zahar bat erosi eta leku horretan mendarotarrei babes ofizialeko etxebizitzak eskaintzeko “gazteek eta ez hain gazteek Mendaron bizitzen jarraitzeko aukera izan dezaten”.

Inbertsioez aparte, nabarmentzekoa da onartu diren aurrekontuetan arlo sozialak hartu duen garrantzia. Gizartegintzarako 549.450 euro gordeko dira 2025ean, hau da, 2024an baino %16 gehiago. Etxez-etxeko laguntza zerbitzuak izandako eskari kopuruaren gorakadari zor zaio hein handi batean igoera hau. Hain zuzen ere 239.000 euroko partida jaso da zerbitzu honetarako, iazkoa baino %71 handiagoa. Mendaroko Udalak oso argi dauka Mendaroko herritarrentzat oinarri-oinarrizko zerbitzu bat dela honakoa, eta hartu beharreko neurriak hartu nahi ditu, gero eta zaharragoa den gure gizartean beharrean dagoen jendea duintasunez zaindua izan dadin. Bestetik, eta gizarte babesari lotuta baita ere, aipatzekoa da Gizarte Larrialdietarako Laguntzarako ere 60.000 euroko partida bat onartu dela, hau ere, iazkoa baino %33 handiagoa.



## **Garagartza auzoko uholdeei aurre egiteko Mendarok Diputazioaren laguntza behar duela adierazi zion Mendaroko alkateak Diputatu Nagusiari**

*Pasa den urtarrilaren 9an Eider Mendozak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatu Nagusiak eta Felix Urkolak, Errepideetako Diputatuak Mendarora bisita egin zuten, amaitu berri duten zubia berrindartu eta birgaitzeko lanak ikusi eta Mendaroko Udal Gobernuarekin lan-bilera bat egiteko. Goizean egin zuten bilera eta horren ostean bisitatu zuten zubi berritua, hain zuzen ere.*

Bilerari dagokionean Enez Ezenarro Mendaroko alkatea bildu zen bi Diputatuekin eta Mendaroko Udalaren partetik GFAREN eskumenekin lotutako hainbat puntu komentatu eta zenbait eskaera egiteko aprobetxatu zuen.

Uholdeen gaia izan zen bilerako gai nagusia. Alkateak azaldu zien URA agentziaren 2021eko azken txostenaren arabera ezinbestekoa zela Garagartza auzoko uholdegarritasun arazoei erantzuteko ekaitz tankeak eraikitzea eta ekaitz tankeen proiektua idatzita zegoela. Herritarrei 2023an Diputazioan egindako bileran proiektu hori Udala, Diputazioa eta Ur Partzuergoaren artean kofinantziatuko zela agindu zitzaizela eta, zentzu horretan, akordioen bat bilatzeko borondatea erakutsi zien Udalak. Mendarotarrentzako lehenbailehen eta lehentasunez konpondu beharreko gaia zela azpimarratu zien, gainera. “Herritarrek 2023ko maiatzean bilera hartatik jasotako akta ere eskuan jaso zuten” Ezenarroren arabera.

Bestetik, Errepideetako Diputatuak bertan zela aprobetxatuta, errepideen inguruko gai desberdinak landu zituzten. Hasteko Foru Aldundiak duela urte pare bat hartutako Mendarorako errepidezko sarrera berria eraikitzearen inguruan jardun zuten. Momentu honetan proiektua idazten ari da Diputazioa eta Mendaroko Udalak proiektu horretan bere ekarpenak egiteko prestutasuna jakinarazi zien.

Elgoibartik Debarako noranzkoan autobusa geratzen den bi puntutan sortzen diren arazoak ere aipatu zizkien Ezenarrok. Bere hitzetan “Azpilgoetako geralekua oso puntu arriskutsua dela komentatu genuen, bihurgune baten ostean dagoelako, autobusa errepide erdian geratzen delako, eta batez ere, erabiltzaileek zain egoteko leku egokirik ez dutelako, errepide ertzean, ibaitik bereizten duen petrilaren kontra eta errepidea igarotzeko zeharrik gabe”. Horrez gainera, “Plaza Auzo parean, Debarako noranzkoan dagoen autobusaren geralekua seinalizatu eta egokitu beharko litzatekeela esan zitzaion; hor ibilgailuak oso bizkor pasatzen direla, eta, batez ere, Plaza Auzorako paso egokirik ez dagoela”.

Gipuzkoako Foru Aldundia lantzen ari den Errepideetako Zarataren Aurkako Plana ere izan zuten mintzagai bileran. Ezenarrok azaldu zion Mendaroko Udalak alegazioak egin zizkiela plan horri, Mendaron duela urte batzuk egindako neurketetan oinarrituta, baina alegazio horiek ezetsiz jaso zutela erantzuna, neurketen arabera Mendarokoa lehentasunezko leku ez zelako kontsideratzen. AP8 autopistaren inguruan kokatutako etxebizitzak, Diputazioak azaldutako kasu partikularren azterketan aintzat hartzeko eta beharrezko neurriak hartzeko eskatu zitzaion Mendaroko Udalaren partetik.

Errepideekin amaitzeko, Intxaurbakoitza gaineko zuhaitzekin azken hilabeteetan izandako arazoak aipatu zituzten. Hiru hilabeteen bi aldiz erori direla zuhaitz adar eta enborrak leku horretan, eta, bereziki, ibilgailuentzat Azpilgoetarako sarbide bakar bezala jarri denetik, ibilgailu eta oinezkoen joan etorri handiko tokia dela eta berehalako soluzio bat eskatzen duela, gune horretako zuhaitzak berrikusi eta beharrezko neurriak hartuz.

Amaitzeko bidegorrien gaia ere jarri zen mahai gainean. Herrien arteko bidegorriak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskumena direla kontuan hartuta, Ezenarrok hau ere herritarrentzako lehentasunezko gaia zela luzatu zion agintariei. “Inguruetako herri guztiek badauzkate bidegorri zatiak. Mendaro da gure inguruan horrelako azpiegiturarik ez daukan herri bakarra”. Aisialdiaren eta osasunaren, nahiz aldaketa klimatiko eta trantsizio energetikoaren ikuspegitik lehenbailehen aurrera eraman beharreko proiektua dela, “baita Mendaron ere; zer esanik ez, Mendarok Debarreneko Ospitalea eta hiru industriagune dauzkala kontuan hartuta”.



## **Mendaroko Udalak Herritartasuneko Teknikariaren lanpostuaren deialdia itxi du**

Mendaroko Udalak herritartasuneko teknikariaren lanpostua betetzeko deialdia itxi berri du, hautaketa prozesuaren bidez, lehiaketa-oposizio bidez.

Postua udalaren plantillan sartuko da, eta kontratu laboral baten bidez eskainiko da, lanaldi malguarekin.

Herritartasuneko Teknikariak, besteak beste, Mendaroko Herritartasun Planaren prestaketa eta gauzatzeaz arduratuko da, udalerrriaren beharrak ebaluatuta. Horrez gain, herritarrei zuzendutako prestakuntza, orientazio eta aisialdi jarduerak antolatu, planifikatu eta inplementatzeaz arduratuko da. Jardueren aurrekontua kudeatzea eta jardueren difusioan laguntzeko prentsa ohar eta material audiobisualak idaztea ere izango ditu bere egitekoa.

Postu horrek, halaber, beste udalerrri batzuekin, tokiko elkarteekin, ikastetxeekin eta Udalaren beste unitate batzuekin koordinazio eta lankidetzaz egitera behartuko du, proiektu komun eta lankidetzaz oinarritutako jarduerak eta ekintzak antolatzeko. Bestalde, kontratuen, lizitazioen eta diru-laguntzen kudeaketa eta jarraipena egiteko ardura izango du.

Eskatutako profila A2 taldeko tituludun bat izango da, eta hizkuntza maila 4 eskatuko da 2023ko abenduaren 31tik aurrera. Oposizioaren probak gainditzen dituzten hautagaiak, baina hautatuta ez badira, lan-poltsa batean sartuko dira, etorkizuneko beharrianetarako.

Hautaketa prozesuak praktika garaia ere barne hartzen du hautagai aukeratuek. Aurkezteko epea amaitu arren, interesa dutenek antzeko deialdiak etorkizunean egon daitezkeela kontuan izan beharko dute.





## **Burulogy tailerrean izena emateko epea zabaldu da**

*Mendaroko Udalak, Burulogy-ren bidez, entrenamendu kognitiboko tailer bat ezarri nahi du adimen-trebetasunak hobetu nahi dituzten eta gradu altuko nahasmendurik ez duten pertsonentzat.*

Berau teknologia berriak erabiliz gaitasun mentalak lantzeko eta hobetzeko pentsatutako eta sortutako programa da.

Aplikazio honen bidez, funtzio kognitibo guztiak betetzeaz gain (memoria, kalkulua edo buru-bizkortasuna), tarte dibertigarri bat igarotzeko espazioa izango da.

Bestalde, aplikazioarekin egindako ariketari esker, erabiltzaileak etengabe ebaluatu ahal izango dira, eta hilabete gutxiren buruan emaitza positiboak ikusi ahal izango dira, eta okertze bat detektatuz gero, ahalik eta azkarren tratatu ahal izango dira.

Programa honetan parte hartu nahi duenak, izena eman beharko du Mendaroko Udalaren bulegoetan. Asteroko saioak izango dira eta parte hartzeak hilean 10 euroko kostua izango du. Izena emateko epea martxoaren 8an amaituko da eta taldea sortzen doan heinean hasiko da martxan.

Burulogy tailer hau Bizi-Bizi programa osatzera dator; programa honek espazio sozializatzailea, errehabilitatzailea eta aktiboa eskaintzen die hauskortasun, kalteberatasun, bakardade egoeran edo mendetasun egoeran egon daitezkeen mendaroarrei.

Autonomia sustatzera eta pertsona horien mendekotasuna prebenitzera bideratutako baliabidea da, bai eta horren onura jasotzen duten familia zaintzaileei laguntzeko baliabide bat eskaintzera bideratutako baliabidea ere.

Helburua honakoa da: Mendaroko adinekoen bizi-kalitatea sustatzea, zahartze aktiboa eta osasungarria sustatuz eta, horrela, erabateko bizi-proiektu baten garapena erraztea. Bizi-Bizi programa honetan izena ematea doakoa da eta Udalaren bulegoetara hurbilduta egin daiteke.



## **Mendaroko Udalak kultur jarduerak eta udal zerbitzuak hobetzeko erosketa berriak egin ditu**

*Mendaroko Udalak azkenaldi honetan hainbat erosketa egin ditu, kultura jarduerak hobetzea eta herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak optimizatzea helburu dutenak.*

Erosketa horiek udal ekitaldi eta jarduerak antolatzeko baliabideak hobetzea eta udal langileen lanaren efizientzia areagotzea bilatzen dute.

Egindako erosketa nagusien artean, ordenagailu eramangarria dago, udal langileek hainbat administrazio egitasmo eta jardueretan erabiliko dutena, lanaren egonkortasuna eta azkartasuna hobetu ahal izateko. Bestalde, bozgorailu subwoofer bat erosi da, eta horrekin, soinu ekipoa hobetuko da, kanpo jardueretan, hala nola kontzertuetan, jaialdietan edo kirol ekitaldietan, soinu kalitatea areagotuz.

Beste erosketa interesgarri bat Udalbatzarako laser-erakusle bat izan da, eta horrek udal gobernu organoaren bileretako aurkezpenak eta azalpenak errazteko eta dinamizatzeko helburua izango du. Tresna honek, era berean, zinegotziek elkarrekin interaktiboki lan egitea ahalbidetuko du eta bertaratutakoen esperientzia hobetuko du.

Audiobisual arloan, San Agustin Aretoan erabiliko den proiektore bat erosi da, bertan proiektzioak edo beste kultur jarduera batzuk egin ahal izateko. Proiektore honek parte-hartzaileek esperientzia aberatsago eta hurbilagoa izango dute.

Azkenik, 25 mahai tolesgarri erosi dira, hainbat jardueretan erabiliko direnak, bai Udalak antolatutako ekitaldietan bai beste erakunde batzuek. Mahai horiek oso erabilgarriak izango dira elkarretaratze sozialak, azokak, azoka edo bestelako ekitaldiak antolatzeko, azkar eta funtzionaltasunez kokatzeko aukera emango baitute.

Erosketa hauekin, Mendaroko Udalak bere konpromisoa berresten du zerbitzu publikoak eta kultura eta komunitate ekitaldiak hobetzeko, udal langileei eta herritarrei beharrezko baliabideak eskainiz, ingurune eroso, irisgarri eta eraginkorragoa izan dezaten.



## **Amaitu dira Santa Ana basilizaren birgaitze lanak**

*Aurrera begira, Santa Anarako bidea txukuntzeko asmoa ere badauka Udalak.*

2023ko azaroan, herritarrekin bilera bat antolatu zen Santa Anako basilizaren birgaitze lanei buruz hitz egiteko. Aldundiko Ondare saileko arkitektoa 2024ko urtarrilean izan zen Mendaron Santa Anako eraikinaren kaltea baloratzeko. Lehen gainbegiratuan teilatuan egoera txarrean zeuden egur batzuk aldatu eta beste lan osagarriren bat egitearekin nahikoa litzatekeela ematen zuen. Hori ikusita, Udala Gotzaitegiarekin harremanetan jarri zen, konponketa lanak bere gain hartzearen kostuaren truke eraikinaren 30 urterako lagapena negoziatzeko. Apirilean sinatu zuten bi aldeek adostutako hitzarmena.

Horretaz gain, lanen kostua bere gain hartzeko Aldundiak babestutako ondarea birgaitzeko urtero ateratzen dituen dirulaguntzen deialdira aurkeztu zuen Udalak 48.000 eurotan baloratutako proiektua. Azkenean 14.884 euro (BEZ barne) inguruko dirulaguntza lortu zen Foru Aldunditik.

Lanak Egurki enpresari esleitu zitzaizkion 45.647,71 eurogatik (BEZ barne) eta maiatzaren azkenerako ekin zitzaien Santa Ana basilizako teilatua konpontzeko lanei. Andamiajea jarri eta teilatuko teilak erretiratu zituztenean, ordea, egin beharreko lanak hasieran aurreikusitakoak baino dezente handiagoak zirela konturatu ziren; teilapeko taula sitsak janda zegoela eta gapiriotako batzuk ere hondatuta zeudela. Hauek guztiak berritzeak aurreikusitako aurrekontua gainditzea zekarren, eta horren ondorioz obra geldiaraztera behartuta ikusi zen Udala ekainaren hasieran.

Teilatuaren birgaitze integrala jasotzen zuen proiektu berria irailean lizitatu zen eta lehiaketan, berriz ere, Egurki enpresa nagusitu zen, 137.927,04 euroko lizitazio prezioarekin, azken datuen faltan.

Gainera, izandako arazoak bitarteko, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hala adostuta 2025eko dirulaguntzetara ere aurkeztuko da proiektu berria eta hortik finantzazio iturri garrantzitsu bat lortzea espero du Udalak.



## **Gizarte Larrialdietarako Laguntzak 2025erako**

*Mendaroko Udalak 60.000 euroko partida izango du 2025. urterako, gizarte-bazterkeriako egoerak prebenitzeko, saihesteko edo arintzeko beharrezkoak diren gastu espezifikoetarako aurre egiteko baliabide nahikorik ez duten bizikidetzak-unitate baten pertsonentzat.*

Eskabideak interesdunak sinatutako eskabide bidez egin beharko dira. Eskabideekin batera, 4/2011 Dekretuaren 16.1 artikuluan jasotako agiriak aurkeztuko dira.

Eskabideak hiru hilean behin izapidetu eta ebatziko dira, eta 2025erako eskaerak egiteko epeak honako hauek izango dira:

- 1. Hiruhilekoa: urtarrilaren 27tik otsailaren 28ra.
- 2. Hiruhilekoa: apirilaren 28tik maiatzaren 29ra.
- 3. Hiruhilekoa: uztailaren 7tik abuztuaren 8ra.
- 4. Hiruhilekoa: urriaren 20tik azaroaren 20ra.

Aurreko paragrafoan ezarritako aldiak igaro ondoren, ez da eskabiderik onartuko, salbuespenezko egoeretan izan ezik, horiek txosten sozialaren bidez egiaztatuko baitira. Adingabeak ardurapean dituzten familia-unitateen eskaerak ere onartuko dira.

Irizpide orokor gisa, lehenik eta behin, honako kontzeptu hauek dituzten eskabideak hartuko dira kontuan: ohiko etxebizitza edo bizitokia mantentzea, etxebizitza alokatzea, azpierrentamendua, baterako errentamendua, ostatua/apopilotza edo gelaren alokairua, bai eta hipoteka-kreditua ordaintzeko direnak ere.

Adingabeak ardurapean dituzten familia-unitateek, aurreko paragrafoan adierazitako kontzeptuez gain, honako kontzeptu hauetarako laguntzak eskatu ahal izango dituzte: oinarrizko premiengatikoko gastuak: oinarrizko premiei lotutako gastuak (janaria, arropa eta hezkuntza...)



## **Azken 4 urteetan landa-lurzoruko lursailak topografikoki mugatzeko lanetan ibili da Mendaroko Udala, eta hurrengoa, 2025koa, izango da azken urtea.**

*Lurjabeei lan hauek azaltzeko bilera bat izan zen abenduaren 19an Udalbatza aretoan.*

Mendarok landa-lurzoruko lursailak topografikoki mugatzen jarraituko du. Ietik 10ra bitarteko poligonoak egin ondoren, udalerriko 11 eta 12 poligonoetako landa-lursailen mugaketarekin jarraituko da, Geograma enpresa kontratatuz.

Jabeen edo haien oinordekoen landa-ondasunen inguruko ezagutza faltak edo ezjakintasunak mugak nahastea edo besterik gabe desagertzea eragiten du. Horrek, mendia ez zaintzea eragiten du eta ondorio larriak eragiten ditu landa munduan.

Iaz bezala, Mendaroko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundiko Lurralde Oreka Berdearen Departamentuaren dirulaguntza erabilita, landa-lurretan kokatutako 534 hektareako azalera duten 162 lursail baino gehiago mugatzeko lanekin hasi da, Geograma enpresaren laguntza teknikoarekin.

Proiektuaren helburuak mugetan egon daitezkeen akats posibleak argitzea eta zuzentzea eta mugei eta mugarriei GPS koordenatuak ematea dira.

Lan hauek behar bezala burutzeko 59 jabe baino gehiagoren kolaborazioa izatea ezinbesteko baldintza da, zeinak auzokideekin lursailen mugak eta mugarriak adostu behar dituzten. Lanak egin ostean, markatutako mugak eta mugarrien koordenatuak dituzten planoak entregatuko zaizkie jabeei, behar izanez gero, Katastroko mugak zuzenduz.

Mendaroko Udalak jabeen lankidetzaz eskatzen du mugakideekin mugak adosteko, lanak egiteko ezinbesteko baldintza baita. Auzokideen artean adostasunik ez badago, proiektua ezin da gauzatu. Jabeen parte-hartzea borondatezkoa da eta ez die gastu ekonomikorik ekarriko. Hori bai, aldez aurretik, mugak garbitu, mugarriak topatu eta mugakideekin mugak adostu beharko dituzte neurketa topografikoak egiteko.





# **BOLETÍN MUNICIPAL**

## **de Mendaro**

Enero de 2025



## **Índice**

### **Aprobado por unanimidad el presupuesto del Ayuntamiento de Mendaro para 2025.....4-5**

Los dos partidos del gobierno municipal aprobaron por unanimidad el presupuesto de 2025 para el Ayuntamiento de Mendaro, que asciende a 3.616.757,77 euros, un 12% más que el del año anterior

### **Visita institucional de los Diputados Forales de Gipuzkoa a Mendaro.....6-7**

El pasado 9 de enero, Eider Mendoza, Diputada General de Gipuzkoa, y Felix Urkola, Diputado de Infraestructuras Viarias, realizaron una visita a Mendaro para conocer de primera mano los trabajos de refuerzo y rehabilitación del puente recientemente finalizados, y para mantener una reunión de trabajo con el Gobierno Municipal de Mendaro

### **Convocatoria cerrada para Técnico/a de Ciudadanía en el Ayuntamiento de Mendaro.....8**

El Ayuntamiento de Mendaro ha cerrado recientemente la convocatoria para la provisión de una plaza de Técnico/a de Ciudadanía mediante concurso-oposición libre

### **Abierto el plazo de inscripción en el taller Burulogy.....9**

El Ayuntamiento de Mendaro, a través de Burulogy, quiere implantar un taller de entrenamiento cognitivo para personas que quieran mejorar sus habilidades intelectuales y no padezcan un trastorno de grado alto

### **Nuevas adquisiciones para mejorar las actividades culturales y los servicios del Ayuntamiento de Mendaro.....10-11**

El Ayuntamiento de Mendaro ha realizado recientemente una serie de adquisiciones que tienen como objetivo mejorar tanto las actividades culturales como los servicios que se ofrecen a la ciudadanía

### **Han finalizado las obras de rehabilitación de la ermita de Santa Ana.....12-13**

De cara al futuro, el Ayuntamiento también tiene previsto adecentar el camino a Santa Ana

**Ayudas de Emergencia Social para 2025.....14**

El Ayuntamiento de Mendaro dispone para el año 2025 de una partida de 60.000 euros, para aquellas personas, integradas en una unidad de convivencia cuyos recursos resulten insuficientes para hacer frente a gastos específicos, de carácter ordinario o extraordinario, necesarios para prevenir, evitar o paliar situaciones de exclusión social

**En los últimos 4 años, el Ayuntamiento de Mendaro ha estado trabajando en la delimitación topográfica de las parcelas rústicas, y el próximo, 2025, será el último año.....15-16**

El 19 de diciembre se celebró una reunión en el Salón de Plenos del Ayuntamiento para explicar estos trabajos a los propietarios de los terrenos



## **Aprobado por unanimidad el presupuesto del Ayuntamiento de Mendaro para 2025**

*Los dos partidos del gobierno municipal aprobaron por unanimidad el presupuesto de 2025 para el Ayuntamiento de Mendaro, que asciende a 3.616.757,77 euros, un 12% más que el del año anterior.*

El Pleno del Ayuntamiento de Mendaro aprobó el pasado 26 de noviembre, en sesión ordinaria, el presupuesto de 2025 de 3.616.757,77 euros. Los dos partidos que conforman el gobierno municipal llegaron a un acuerdo y todos los concejales presentes votaron a favor.

Como es habitual, el principal recurso económico del Ayuntamiento de Mendaro para 2025 será el Fondo Foral para la Financiación de los Ayuntamientos (FFFM) del Departamento Foral. Aproximadamente la mitad de los ingresos se obtendrá de este fondo, 1.801.370 euros, que representa unos 70.000 euros más que el ejercicio anterior.

En cuanto a los gastos, el presupuesto aprobado contempla una partida de 353.500 euros para inversiones reales. Se ha aprobado una partida de 150.000 euros para la reforma de la taberna y la residencia de los jubilados, que se utilizará cuando el proyecto esté redactado y se inicien los trabajos, aunque será necesario aprobar otra partida en los presupuestos del próximo año para finalizar las obras. "Casi la mitad de las inversiones se destinan a esta partida, pero creemos que los jubilados del pueblo merecen un lugar digno para disfrutar de su tiempo libre", ha afirmado el alcalde Enetz Ezenarro.

Por otro lado, se prevé una partida de 40.000 euros para la compra de un terreno en el barrio Plaza, en las laderas del río Intxusadi, que el Ayuntamiento tiene acordado adquirir con un terrateniente. Este terreno se destinará a la recuperación de los bosques y la

protección del entorno natural en el marco de las actuaciones que el Ayuntamiento quiere llevar a cabo en esa zona.

También se ha destinado una partida de 50.000 euros para la compra de locales. "Queremos utilizar los locales detrás del frontón para ampliar la zona deportiva que se encuentra allí. Para ello, primero necesitamos buscar un lugar alternativo para el ambulatorio de Mendaro. Estamos negociando con Osakidetza para encontrar un sitio adecuado para el ambulatorio, con el objetivo de aprovechar la reubicación para mejorar los servicios de salud en Mendaro", según el alcalde.

Finalmente, se han reservado 110.000 euros para la compra de un edificio de viviendas antiguo, en colaboración con el Departamento de Vivienda del Gobierno Vasco, con el fin de ofrecer viviendas de protección oficial a los vecinos de Mendaro, "para que los jóvenes y no tan jóvenes puedan seguir viviendo en Mendaro".

Además de las inversiones, destaca la importancia que han tenido las partidas sociales en los presupuestos aprobados. Se destinarán 549.450 euros para asuntos sociales en 2025, lo que representa un aumento del 16% respecto a 2024. Este incremento se debe principalmente al aumento de la demanda de los servicios de ayuda a domicilio. De hecho, se ha asignado una partida de 239.000 euros para este servicio, un 71% más que el año anterior. El Ayuntamiento de Mendaro tiene muy claro que este servicio es fundamental para los vecinos del municipio, y quiere tomar las medidas necesarias para que las personas necesitadas en nuestra sociedad cada vez más envejecida reciban cuidados dignos. Por otro lado, también relacionado con la protección social, se ha aprobado una partida de 60.000 euros para ayudas de emergencia social, un 33% más que el año pasado.



## **Visita institucional de los Diputados Forales de Gipuzkoa a Mendaro**

*El pasado 9 de enero, Eider Mendoza, Diputada General de Gipuzkoa, y Felix Urkola, Diputado de Infraestructuras Viarias, realizaron una visita a Mendaro para conocer de primera mano los trabajos de refuerzo y rehabilitación del puente recientemente finalizados, y para mantener una reunión de trabajo con el Gobierno Municipal de Mendaro.*

En la reunión, el alcalde de Mendaro, Enetz Ezenarro, estuvo con ambos Diputados y aprovechó la ocasión para comentar varios puntos relacionados con las competencias de la Diputación Foral de Gipuzkoa y hacer algunas solicitudes.

El tema principal tratado fue el de las inundaciones. El alcalde explicó que, según el informe final de 2021 de la Agencia Vasca del Agua (URA), era imprescindible la construcción de tanques de tormenta para solucionar los problemas de inundabilidad en el barrio de Garagartza, y que el proyecto de estos tanques ya estaba redactado. Además, recordó que, en la reunión celebrada en 2023 con la Diputación, se había acordado que el proyecto sería cofinanciado por el Ayuntamiento, la Diputación y el Consorcio de Aguas. El alcalde subrayó la importancia de resolver este problema lo antes posible y con prioridad para los vecinos de Mendaro, y señaló que incluso el acta de la reunión de mayo de 2023 había sido entregado a los Diputados.

Por otro lado, aprovechando la presencia del Diputado de Infraestructuras Viarias, se trataron varios temas relacionados con las carreteras. En primer lugar, hablaron sobre el proyecto de la nueva entrada viaria a Mendaro que la Diputación había comenzado hace un par de años. En este momento, el proyecto está en fase de redacción, y el Ayuntamiento de Mendaro mostró su disposición a colaborar y aportar sus sugerencias en este proceso.

El alcalde también planteó algunos problemas relacionados con las paradas de autobús en el recorrido hacia Deba desde Elgoibar, mencionando especialmente la parada en Azpilgoeta, que consideró un punto peligroso debido a su ubicación después de una curva, lo que hace que el autobús se quede en medio de la carretera y los usuarios no tengan un lugar adecuado para esperar. Además, comentó que la parada de autobús cerca de Plaza Auzo debería ser señalizada y acondicionada, ya que allí los vehículos pasan a gran velocidad y no hay un paso adecuado hacia Plaza Auzo.

La reunión también abordó el Plan contra el Ruido de Carreteras que está desarrollando la Diputación Foral de Gipuzkoa. El alcalde explicó que el Ayuntamiento había presentado alegaciones a este plan, basándose en mediciones realizadas en Mendaro hace unos años, pero que estas alegaciones habían sido rechazadas porque, según las mediciones, Mendaro no se consideraba una zona prioritaria. En este contexto, el Ayuntamiento solicitó que se tuviera en cuenta la situación de las viviendas ubicadas cerca de la AP-8, para adoptar las medidas necesarias.

Finalmente, se trataron los problemas recientes ocasionados por los árboles en la zona de Intxaurbakoitza. En los últimos tres meses, dos veces se han caído ramas y troncos de árboles en este lugar, que se ha convertido en una zona de gran tránsito de vehículos y peatones desde que se habilitó como único acceso a Azpilgoeta. El alcalde solicitó una solución inmediata para revisar los árboles y tomar las medidas necesarias.

El tema de los carriles bici también se abordó al final de la reunión. El alcalde subrayó que, dado que los carriles bici entre municipios son competencia de la Diputación Foral de Gipuzkoa, esta cuestión es una prioridad para los ciudadanos de Mendaro. "Todos los municipios de los alrededores tienen tramos de carril bici. Mendaro es el único pueblo de la zona que no dispone de esta infraestructura", indicó Ezenarro. Consideró que este proyecto es necesario no solo para mejorar la calidad de vida, la salud y el ocio de los ciudadanos, sino también para contribuir a la lucha contra el cambio climático y la transición energética, especialmente teniendo en cuenta que Mendaro alberga el Hospital de Debarrena y tres polígonos industriales.



## **Convocatoria cerrada para Técnico/a de Ciudadanía en el Ayuntamiento de Mendaro**

El Ayuntamiento de Mendaro ha cerrado recientemente la convocatoria para la provisión de una plaza de Técnico/a de Ciudadanía mediante concurso-oposición libre.

Esta plaza está destinada a la plantilla municipal y se ofrece bajo un contrato laboral, con una jornada de trabajo flexible.

El puesto de Técnico/a de Ciudadanía tendrá como principales responsabilidades la elaboración y ejecución del Plan Municipal de Ciudadanía, basado en la evaluación de las necesidades del municipio. Además, la persona seleccionada deberá planificar, organizar e implementar diversas actividades dirigidas a la ciudadanía, tales como formaciones, orientación y eventos de ocio. También será responsable de gestionar el presupuesto de las actividades y redactar notas de prensa y material audiovisual para su difusión.

El puesto también incluye funciones de coordinación y colaboración con otros municipios, asociaciones locales, centros educativos y responsables de otras unidades del Ayuntamiento para la planificación y desarrollo de proyectos conjuntos. Otra de las tareas será la supervisión y gestión de contratos, licitaciones y subvenciones relacionadas con el área de ciudadanía.

El perfil requerido es el de un profesional con titulación de grupo A2 y un nivel de perfil lingüístico 4, que será preceptivo a partir del 31 de diciembre de 2023. Además, los aspirantes deberán superar todas las pruebas de la oposición. Aquellos que no sean seleccionados tras superar las pruebas formarán parte de una bolsa de trabajo para futuras necesidades.

Este proceso de selección incluye también un periodo de prácticas para los candidatos elegidos. A pesar de que la fecha de presentación de candidaturas ya ha finalizado, los interesados pueden estar atentos a futuras convocatorias similares.





## **Abierto el plazo de inscripción en el taller Burulogy**

*El Ayuntamiento de Mendaro, a través de Burulogy, quiere implantar un taller de entrenamiento cognitivo para personas que quieran mejorar sus habilidades intelectuales y no padezcan un trastorno de grado alto.*

Se trata de un programa concebido y creado para trabajar y mejorar las capacidades mentales utilizando las nuevas tecnologías.

A través de esta aplicación, además de cumplir todas las funciones cognitivas (memoria, cálculo o agilidad mental), se dispondrá de espacio para pasar un rato divertido.

Por otro lado, el ejercicio con la aplicación permitirá evaluar continuamente a los usuarios y en pocos meses ver los resultados positivos y, en caso de detectar un empeoramiento, tratarlos lo más rápidamente posible.

Quien quiera participar en este programa, deberá hacerlo en las oficinas del Ayuntamiento de Mendaro. Serán sesiones semanales y su participación costará 10 euros al mes. El plazo de inscripción finalizará el 8 de marzo y comenzará a funcionar a medida que el grupo vaya surgiendo.

Este taller Burulogy viene a completar el programa Bizi-Bizi, que ofrece un espacio socializador, rehabilitador y activo a los mendareses que pueden encontrarse en situación de fragilidad, vulnerabilidad, soledad o dependencia.

Se trata de un recurso destinado a promover la autonomía y prevenir la dependencia de estas personas, así como a ofrecer un recurso de apoyo a las familias cuidadoras que se benefician de él.

El objetivo es fomentar la calidad de vida de las personas mayores de Mendaro, fomentando el envejecimiento activo y saludable, y facilitar así el desarrollo de un proyecto de vida integral. La inscripción en este programa Bizi-Bizi es gratuita y se puede realizar acercándose a las oficinas del Ayuntamiento.



## **Nuevas adquisiciones para mejorar las actividades culturales y los servicios del Ayuntamiento de Mendaro**

*El Ayuntamiento de Mendaro ha realizado recientemente una serie de adquisiciones que tienen como objetivo mejorar tanto las actividades culturales como los servicios que se ofrecen a la ciudadanía.*

Estas adquisiciones buscan optimizar los recursos disponibles para el desarrollo de eventos y actividades organizadas por el Ayuntamiento, así como facilitar la labor del personal municipal.

Entre los nuevos materiales adquiridos se encuentra un portátil que será utilizado por el personal del Ayuntamiento en diversas tareas administrativas y actividades, lo que contribuirá a una mayor eficiencia en el trabajo diario. Además, se ha adquirido un altavoz subwoofer de última tecnología para el nuevo equipo de sonido, con el fin de mejorar la calidad sonora en las actividades que se realizan al aire libre, como conciertos, festivales o eventos deportivos.

Otra de las adquisiciones destacadas es un puntero láser para las sesiones del Pleno, que permitirá completar y agilizar las presentaciones y exposiciones durante las reuniones del órgano de gobierno municipal. Este dispositivo facilitará la interacción de los concejales y mejorará la experiencia de los asistentes.

En cuanto a la parte audiovisual, se ha incorporado un proyector que se utilizará en el Centro San Agustín para la proyección de películas y actividades culturales que requieran apoyo visual, como charlas o presentaciones. Esta herramienta permitirá una experiencia más rica y accesible para todos los participantes.

Por último, el Ayuntamiento ha adquirido 25 mesas plegables, que podrán utilizarse en una gran variedad de actividades organizadas tanto por el propio Consistorio como por otras entidades locales. Estas mesas serán especialmente útiles en eventos como comidas

populares, ferias, mercados o cualquier otra actividad que requiera una instalación rápida y funcional.

Con estas adquisiciones, el Ayuntamiento de Mendaro refuerza su compromiso con la mejora de los servicios públicos y la calidad de las actividades culturales y comunitarias, proporcionando al personal y a la ciudadanía los recursos necesarios para que puedan disfrutar de un entorno más cómodo, accesible y eficiente.



## **Han finalizado las obras de rehabilitación de la ermita de Santa Ana**

*De cara al futuro, el Ayuntamiento también tiene previsto adecentar el camino a Santa Ana.*

En noviembre de 2023 se organizó una reunión con la ciudadanía para hablar de las obras de rehabilitación de la ermita de Santa Ana. El arquitecto del departamento de Patrimonio de la Diputación visitó Mendaro en enero de 2024 para valorar el daño del edificio de Santa Ana. Daba la impresión de que con cambiar en el primer supervisado algunas maderas en mal estado en el tejado y realizar algún otro trabajo complementario sería suficiente. A la vista de ello, el Ayuntamiento se puso en contacto con el Obispado para negociar la cesión del edificio por 30 años a cambio del coste de asumir las obras de reparación. El pasado mes de abril se firmó el convenio acordado entre ambas partes.

Además, el Ayuntamiento presentó el proyecto valorado en 48.000 euros a la convocatoria de subvenciones que anualmente saca la Diputación para la rehabilitación del patrimonio protegido para asumir el coste de las obras. Finalmente se obtuvo una subvención de 14.884 euros (IVA incluido) de la Diputación Foral.

Las obras fueron adjudicadas a la empresa Egurki por un importe de 45.647,71 euros (IVA incluido) y a finales de mayo se iniciaron las obras de reparación del tejado de la ermita de Santa Ana. Sin embargo, cuando colocaron el andamiaje y retiraron las tejas del tejado, se dieron cuenta de que los trabajos a realizar eran bastante mayores que los previstos inicialmente; que el tablero de la tejavana estaba comido por polillas y que algunos de los cabrios también estaban deteriorados. La renovación de todas ellas suponía superar el presupuesto previsto, lo que obligó al Ayuntamiento a paralizar la obra a principios de junio.

El nuevo proyecto que recogía la rehabilitación integral del tejado se licitó en septiembre y en el concurso volvió a imponerse la empresa Egurki, con un precio de licitación de 137.927,04 euros, a falta de los últimos datos.

Además, debido a los problemas sufridos, el nuevo proyecto se presentará a las subvenciones de 2025 de acuerdo con la Diputación Foral de Gipuzkoa, de las que el Ayuntamiento espera obtener una importante fuente de financiación.



## **Ayudas de Emergencia Social para 2025**

*El Ayuntamiento de Mendaro dispone para el año 2025 de una partida de 60.000 euros, para aquellas personas, integradas en una unidad de convivencia cuyos recursos resulten insuficientes para hacer frente a gastos específicos, de carácter ordinario o extraordinario, necesarios para prevenir, evitar o paliar situaciones de exclusión social.*

Las solicitudes deberán formularse mediante instancia firmada por la persona interesada. A las solicitudes se acompañarán los documentos que constan en el artículo 16.1 del Decreto 4/2011.

Las solicitudes se tramitarán y resolverán trimestralmente y los plazos de solicitud para el año 2025 serán los siguientes:

- 1. Trimestre: del 27 de enero al 28 de febrero.
- 2. Trimestre: del 28 de abril al 29 de mayo.
- 3. Trimestre: del 7 de julio al 8 de agosto.
- 4. Trimestre: del 20 de octubre al 20 de noviembre.

Tras los periodos establecidos en el párrafo anterior, no se admitirán solicitudes, salvo en situaciones excepcionales, que serán acreditadas mediante informe social. También se admitirán aquellas solicitudes de unidades familiares con menores a su cargo.

Como criterio general, se atenderán en primer lugar aquellas solicitudes cuyos conceptos sean los de mantenimiento de vivienda o alojamiento habitual, alquiler de vivienda, subarriendo, coarriendo, hospedaje/pupilage o alquiler de habitación, así como aquellos destinados a cubrir el pago del crédito hipotecario.

Aquellas unidades familiares que tengan menores a su cargo, además de los conceptos señalados en el párrafo anterior, podrán solicitar ayudas por el siguiente concepto: gastos por necesidades primarias: gastos asociados a necesidades básicas (comida, ropa y educación...)



**En los últimos 4 años, el Ayuntamiento de Mendaro ha estado trabajando en la delimitación topográfica de las parcelas rústicas, y el próximo, 2025, será el último año.**

*El 19 de diciembre se celebró una reunión en el Salón de Plenos del Ayuntamiento para explicar estos trabajos a los propietarios de los terrenos.*

Mendaro continuará con la delimitación topográfica de las parcelas rústicas. Después de realizar los polígonos del 1 al 10, se continuará con la delimitación de las parcelas rústicas de los polígonos 11 y 12 del municipio, contratando a la empresa Geogramma.

La falta de conocimiento sobre las propiedades rústicas de los propietarios o sus herederos provoca que los límites se confundan o simplemente desaparezcan. Esto provoca la desatención de la montaña y genera consecuencias graves en el mundo rural.

Al igual que el año pasado, el Ayuntamiento de Mendaro, utilizando la subvención del Departamento de Equilibrio Territorial Verde de la Diputación Foral de Gipuzkoa, ha comenzado a trabajar en la delimitación de más de 162 parcelas, que ocupan una superficie de 534 hectáreas en terrenos rurales, con la ayuda técnica de la empresa Geogramma.

Los objetivos del proyecto son aclarar y corregir posibles errores en los límites y proporcionar coordenadas GPS a los límites y mojones.

Para realizar estos trabajos de manera adecuada, es imprescindible la colaboración de más de 59 propietarios, quienes deberán acordar los límites y mojones con los vecinos. Tras la realización de los trabajos, se entregarán a los propietarios los planos con las coordenadas de los límites y mojones, y, si es necesario, se corregirán los límites catastrales.

El Ayuntamiento de Mendaro solicita la colaboración de los propietarios para acordar los límites con los vecinos, ya que es una condición indispensable para la realización de

los trabajos. Si no hay acuerdo entre los vecinos, el proyecto no podrá llevarse a cabo. La participación de los propietarios es voluntaria y no les acarrearán gastos económicos. Sin embargo, deberán limpiar los límites, encontrar los mojones y acordar los límites con los vecinos antes de realizar las mediciones topográficas.